


urria / azaroa  
october / november

12

# the balde




0€

bidean utzitako urratsak  
the tracks left behind



2

urte  
years



the balde

marzelo zelaieta 75  
13. bulegoa  
31014 iruñea  
t. +34 948. 12.19.76

kristobaldegi 14  
20014 Ibiola donostia  
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net  
m. +34 639 20 80 22

www.thebalde.net

**argitaratzailea / publisher:** eragin. komunikazioa eragin sli

**editore / editor:** iñigo martínez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**zuzendari komertziala / comercial director &**

**publizitatea / publicity:** idoia artxanko

**talde eragilea / promoters:** koldo almandoz, martin etxauri,  
unai abarzuza, txuma vazquez, iñigo martínez, idoia artxanko.

**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez,  
igor astigarraga, sonia beroiz, juan luis napal, maku oruezabal,  
angel burgaña.

**itzulpenak / translations:** smiley

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:**

asier leoz, nagore telleria, ainger, ekhiñe egiguren, modorrrak,  
blanca oria, juan aizpitarte, ibm, ome, fun-tsak, markos

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:**

uxeta labrit, cesar torales, elena castillo, jero, txuma.

**harpidetza orria / subscription page:** uza

**ale honetako komikia / comic this issue:** jon manzisor (m)

**inprimategia / printed at:** espacegrafic

**lege gordailua / legal:** na-3244/01

Ian berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:  
imaginative, provocative and interesting works? send them to:  
[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)

15


irudia / image: uxeta labrit

12

## LABURRAK IN BRIEF



THE BALDE JAIA.  
GETARIAKO EMANANKA. 11.  
ALEAREN AURKEZPENA.



MICRO-INTERVIEW WITH FLAVOR  
FLAV AT THE ENTRANCE TO THE  
JAM CONCERT HALL

thb: You're the fucking best.

ff: No you're the fucking best man.

thb: No you're the fucking best.

ff: No you're the fucking best man.

thb: Bye.

ff: Bye man.

THB: YOU'RE THE FUCKING BEST  
FF: NO, YOU'RE THE FUCKING  
BEST, MAN

HIGH-SPEED AMPHIBIAN CAR

They've gone and done it. Tell us one person who has never felt like jumping into their car, lashing it into fifth gear and plunging into the sea to get away from all those packed beaches in search of an idyllically abandoned cove or inlet somewhere. Well, that's exactly what you can do with this new car designed by two English companies. You too can now do what smarmy-arsed Roger Moore did as James Bond in this mo-mo. Zoom up mountain roads like Tourmalet or scoot out across the waves to little islands like Iزارo. It does up to 160 km/h on the road and 50 km/h in the water and costs a mere \_220,000 at your local showroom!



LOST IN TRASLATION

Sofia Coppola's last film, which gives us a special insight into the world of advertising, proves that she's more than just a surname. Two Americans in Tokyo. Neither can sleep and they bump into each other in the hotel bar. Two lost souls. Two friends, two... Two. The great Bill Murray, more than just a comic, and Scarlett Johansson, as beautiful an actress as she is a woman.  
[www.lost-in-traslation.com](http://www.lost-in-traslation.com)

ITZULPENEAN GALDURIK

Abizen bat baino gehiago dela frogatu duen Sofia Coppolaren azkeneko lanak publizitatearen munduaren ikuspegi berezia eskaintzen digu. Bi estatubatuar Tokyon. Lo egin ezinik, hoteleko tabernan topo egiten duten bi pertsona. Bi arima galdu. Bi lagun, bi... Bi. Komikoa baino gehiago den Bill Murray handia eta emakume ederra bezain aktore ona den Scarlett Johansson.  
[www.lost-in-traslation.com](http://www.lost-in-traslation.com)

ABIADURA HANDIKO KOTXE ANFIBIOA.

Egin dute. Nork ez du inoiz hondartzako inurritegia atzean utzi eta kotxea aparkalekuan aparkatzeko izerdiak ahaztuta, 5 martxa sartu eta kala isil bat topatu arte itsasotik jarraitzea pentsatu?  
Bi enpresa ingelesek egin duten kotxe honekin, Roger Moore, Bond katxondoak, Venezian Gondola batekin egin zuena egin dezakezu kotxe honekin. Tourmaleta igo edo Iزارora olagarrotara joan. 160 km/ord. errepidean eta 50 Km/ord. ur gainean eta 220.000 euro inguruko salneurria.  
[www.aquada.co.uk](http://www.aquada.co.uk)





 euskadigaztea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes

  
gaztemaniak!




Musika Gida ekimenak Gipuzkoako musika talde guztiei buruzko informazioa jasotzeko helburua du.



[www.gaztemaniak.net/musikagida](http://www.gaztemaniak.net/musikagida)

**musika  
gida**

elektronikaldia\_2003\_modern life



# ELEKTRONIKALDIA

DONOSTIA URRIAK 10, 11 ETA 12  
SAN SEBASTIAN 10, 11 & 12 OCTUBRE **2003**



**10** Ostirala - Viernes TICKET 6 €  
"Gaztemaniak Gaua" **GAZTESZENA**



**SCHNEIDER TM** BERLIN

**FARBEN** BERLIN

**ASIER LEATXE** MONDRAGON

**ERTZ:**

**MARTIKO ETA GARATE** BERA

**SOUNDCHECK** BERA

**IRAZOKI, TELLETXEA &**

**ERKIZIA TRIO** BERA

**11** Larunbata - Sabado GRATIS !!!  
"E-aldia Eguna" **KURSAAL**

**UN CADDIE RENVERSÉ**

**DANS L'HERBE** BCN

**KHÖN** BRUSELAS

**MODESELEKTOR** BERLIN

**JAN JELINEK** BERLIN

+ IRABAZLEAK - GANADORES:

"DONOSTIA ELEKTRONIKOA 2003"

+ FERIA + INTERNET TXOKOA + PRESENTACIONES...

**11** Larunbata - Sabado TICKET 18 €  
"E-aldia Gaua" **GAZTESZENA**

**DJ FOOD** LONDON

**Co Op PARTY** WITH:

**DEGO** 4 HERO

**AFRONAUGHT** BUGZ IN THE ATTIC

**IG CULTURE** NEW SECTOR MOVEMENTS  
WEST LONDON

**IBON ERRAZKIN** DONOSTI

**JOSETXO ANITUA** BILBO

**12** Igandea - Domingo GRATIS !!!  
"Arteleku Eguna" **ARTELEKU**



**FRANCISCO LOPEZ**

[www.elektronikaldia.org](http://www.elektronikaldia.org)




Kursaal eta Gazteszena dira jaialdia bideratzen duten aretoak, baina aurtengoan ania berria izango dute: Arteleku. Azkenaldian horrenbeste proiektu berri eta interesgarri eskaintzen ari den Audiolab laborategiaren bitartez Francisco Lopez madrildarraren emanaldia izango da bertan urriak 12 igandea. Biharamunari aurre egiteko bere soinu elektroakustikoak lagungarriak izango dira.

Jaialdia bi egun lehenago hasiko da Gaztemaniak festarekin Egiako Gazteszena aretoan. Bertan gaur egun Euskal Herrian ditugun giro berritzaileenekin gozatzeko aukera izango da: Ertz jaialdi-ekimenera hurbilduko dira gauaren lehen orduak Martiko eta Garate Soundcheck edo Irazoki, Telletxea & Erkizia Triori esker. Asier Leatxe arrasatearraren atmosfera ere gauaren lehen orduetan izango da. Ondoren gauari jarraipena ematen Berlineko uzta oparoena etorriko da Donostiara, han izango dira Schneider Tm eta Farben.

Larunbata ondo asteko Kursaaldean arratsaldean zehar izango diren ekimenetan parte hartzea izango da hoberena: ohiko feria, internet txokoa eta giro apartaz gain aurreko gauean Farben-en atzean ezkutatutako Jan Jelinek dira proposamenetako batzuk. Gainera: Khón (Brusela), Modeselektor (Berlin) eta Un Caddie Reversé dans l'herbe (Bartzelona) eta Demo lehiaketako irabazleen emanaldiak ere izango ditugu.

Gau partean hegan egiteko parada E-galdia festaren eskutik dator. Gure arteko musikaririk esanguratsuenetariakoak: Josetxo Anitua (Cancer Moon), Ibon Errazkin (Le Mans) eta beraiekin batera Londres aldetik datozen erritmo esanguratsuak dj Food-i esker. Hemen ez da gutzia amaitu ordea, urte gutzian zehar etxean prestatzen aritu garen dantza erritmo eta koreografiak frogan izango dira Co Op Party-an. Bertan izen handiko maisuak izango dira: Dego (4hero), Afronaught (Bug in the attic) eta Ig Culture (New Sector Movements). Ez ahaztu beraz zapatila berriak erostea, seguru azkeneko jantziko dituzula!



## audiolab.

### audio eta musika garaikideko laborategia

a laboratory of audio and contemporary music

The Kursaal and the Gazteszena are the two major venues for this festival, but this year sees them joined by a new brother-in-arms: Arteleku. Their Audiolab has been recently responsible for some very interesting new projects. Madrid man Francisco Lopez will be performing there on Sunday the 12th of October. His electro-acoustic sounds are one hell of a way of getting over a hangover.

The festival starts two days before with the Gaztemania festival at the Gazteszena in Egia. The who's who of Basque Music modernity will be displaying their wares: Martiko eta Garate Soundcheck and Irazoki Telletxea & Erkizia Trio give the opening hours of the night a distinct Ertz Festival flavour. Atmospheric Asier Leatxe from Arrasate also appears at the beginning of the night. Berlin's finest then take hold of the reins as Schneider Tm and Farben take you into the small hours of the morning.

The best way of starting off on Saturday afternoon is to head on down to the Kursaal and take a look at what's going on there. You'll have the usual fair and there's also the internet room to doss around in. Jan Jelinek, hidden behind Farben the night before, has an interesting proposal you shouldn't miss. That's not to mention the rest: Khon (Brussels), Modeselektor (Berlin), and Un Caddie Reversé dans l'herbe (Barcelona). The winners of the Demo Competition will also be performing.

The E-galdia festival at night will have you sprouting wings with some of the best local musicians: Josetxo Anitua (Cancer Moon), Ibon Errazkin (Le Mans) and along with them, dj Flood from London with all the latest and greatest in sounds from that neck of the woods. And that's not all! The dance rhythms and choreography we've been preparing all year will be performed at the Co Op Party by Deگو (4hero), Afronaught (Bugz in the attic) and Ig Culture (New Sector Movements). Don't forget to get yourself some new sneakers, it'll be the first and last time you'll wear them!!

#### Francisco López workshop

Soinu artista nomada honen ibilbide nekaezinak gure ingurune sonoroaren inguruan hausnarketa sakon bat egitera bultzatzen gaitu. Naturaren mugagabeko soinu indarraren zenbatekoaz jakitun, bere lana indar hauek bereganatu eta paisai sonoro dentsu eta sakonak sortzean oinarritzen da.

80. hamarkadaz geroztik hainbat diskoa argitaratu ditu, gehienak bakarka baina baita bertze artistekin kolaboratzen ere, ( Amy Denio, Michael Northam, Zbigniew Karkowski, John Duncan, Jorge Simonet, Steve Roden. . . ). Hauetako batzuk ABSOLUTE izeneko bere label-proiektuan argitara eman ditu, antolatzen dituen Noise Ensemble-en emanaldiak bezala.

Arteleku eginen dituen jardunaldietan, bere lana hitzez eta praktikan azalduko du, hitzaldi, proiektio edo irakurketen bidez, eta konposatzeko sortze prozesuaren barrenak azalduz.

Honez gain, eta workshop-ari bukaera emateko, nazioartean ezagun egin duen intentsitate handiko zuzeneko "itsua" aurkeztuko du Lopezek.

**Workshop:** urriak 10, ostirala (arratsalde) eta urriak 11, larunbata (goizez)

**Kontzertua:** urriak 12, igandea (arratsalde) Arteleku

[www.franciscolopez.net](http://www.franciscolopez.net)

This nomadic sound artist's endless forays into the world of sound lead us to reflect on our sonorous surroundings. A deep knowledge of the limitless strength of the sounds of nature, he has based his music on the incorporation of this strength into his music to come up with dense musical passages and sound scenery.

He has released quite a few records since the 80s. Most of them have been released as a solo artist but he has collaborated with others such as Amy Denio, Michael Northam, Zbigniew Karkowski, John Duncan, Jorge Simonet, Steve Roden. . . . Some of these records have been issued on his own label, ABSOLUTE, as is the case with the performances he organises with the Noise Ensemble.

At his sessions in Arteleku he will speak about and give practical examples of his work through talks, projections and readings. He will also explain the creative process in composing. To finish off, Lopez will present the internationally famous high density "itsua".

**Workshop:** Friday Evening, 10th of Oct and Saturday Morning, 11th of Oct

**Concert:** Sunday Evening, 12th of Oct At Arteleku


# BEHI EROAK

PATXI ITURREGI



elkar

PATXI  
231  
ITURREGI



COMPañÍA, 6 · 31001 PAMPLONA / IRUÑEA · TEL 948 206 334

ireki eta...



open and...  
it up

ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE PAMPLONA  
IRUÑEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

FAX 948 206 344 · eipamplona@pnte.cinavarra.es · www.pnte.cinavarra.es/eip

orepel - JATEKES



Salamanca pasalekua, 3 • 20003 Donostia • 943 42 40 40

testua / by: nagore telleria



egilea / author:  
jokin muñoz  
argitaldaria / published by:  
alberdania

testua / by: luis sarasola



egilea / author:  
raymond carver  
itzultzailea / translator:  
koro navarro  
argitaldaria / published by:  
alberdania & elkar

## bizia lo

Hiru dimentsiotako betaurrekoekin begiratzen du Jokin Muñozek ingurura. Bertan plano ezberdinak erakusten dizkigu. Lehendabiziko dimentsioan abertzaletasun konprometituaren ajeak agertzen dira. Kromagnon kalashnikov bati helduta. Hamabost urte pasatzen ditu barruan. Taldeko intelektuala, Bakunin, unibertsitateko irakaslea da. Kromagnonen semearena hain zuzen. Ordurako Kromagnon desmarkatu da eta emazteak utzi ere egin du. Kontzientzia ideologikoa.

Bigarren dimentsioan familiak sortzen dizkigun lotura inkoherenteak agertzen dira. Trafikanteak anaia tontoari amnistiako pegatinak ematen dizkio paparrean jartzeko. Hark garabiei harri tiraka pasatzen du eguna Che Gevararen kamisetak soinean dituztenek tiro egiten duten bezala. Trafikantea auzokidearen komandoak hiltzen du tirokatuta. Belaunaldien arteko koskak ere hor daude. Gurasoak telediariora ikusten kotxearen leherketako berrian semearen izena esango duten beldur. Hirugarren dimentsioan sakontasuna dago. Heriotza. Haurra ohean altxa ezinda gaixorik mekano batekin jolasean, eta gurasoak negar zotinka ezkutuan. Bizia lo. Bost ipuin laburretan kontatutakoaren printzak dira hautatu ditugunak. Ausardia garesti dagoen garai hauetan, zorrotz eta alperrikako txalematikaririk gabe idatzitakoak dira denak. Banatu beharreko liburua duarik gabe. Egunkariarekin zabaldu ezkerro ez luke oihartzun gehiegirik ere.. Hortaz Sin Chanen ondoren eman beharko lukete kapituloka, edota bestela institutu eta unibertsitateetan derrigorreko irakurketen zerrendan sartu.

Jokin Muñoz observes what's going on around him through three-dimensional glasses. He then shows us these different dimensions. In the first dimension we see the defects of committed patriotism. Kromagnon with a kalashnikov in hand. He spends fifteen years in jail. The intellectual in the group, Bakunin, is a university professor. At the same university Kromagnon's son goes to. By then Kromagnon had renounced his past and had left his wife. Ideological consciousness.

In the second dimension we see the incoherent ties created by family. The drug-dealer gives his fool brother amnesty stickers to wear. He spends his days throwing bricks at the cops just as those who wear the Che Guevara t-shirts shoot bullets. The drug-dealer is shot by a local operative cell. The differences between generations is present here too. Parents watch the news and fear they will hear their son's name mentioned in connection with bomb blasts going off. In the third dimension we come across deepness of feeling. Death. Parents sob, hidden away in the corner as their bedridden sickly child plays with a Meccano set. Life asleep. The above are just fragments we've chosen from this book of five short stories. At this time when audacity is so hard to find, all these stories are sharp and to the point with no excess flab. This book should be distributed as much as is possible. Giving it away with the newspaper is not too much of a step to take. It should be shown chapter by chapter on TV after Sin Chan or it should be made compulsory reading at secondary schools and universities.

Euskal musikan Laboaren eragina aldarrikatzen den erraztasun berarekin aldarrikatzen dute hainbat idazleek Raimond Carver estatubatuarraren literaturaren eragina. Eta saiakerak behintzat egiten ditu askok, baina gutxitan ( inoiz ez esateagatik) lortzen dute hark sentitu arazten digun etsipena. Carver sinplea, Carver zikina, Carver erromantikoa, Carver lausoa. Errealitatea bezain hutsal eta sakona. Ezer gertatzen ez denean zenbat gertatu daitekeen inork baino hobeto islatzen duena. Liburu honen itzultzaileari, Koro Navarrori zera irakurri genion liburuaren aurkezpen elkarrizketa batetan "Hizkuntzak eta kontaktak berez jotzen du konplexutasunera, aberastasunera; Carverrek, ordea, kontakizunaren eta hizkuntzaren legeen kontra egiten du", eta zera nabarmentzen zuen "Bere idazkera izugarri landua da, ideiei eta elkarrizketei indar handia ematen die". Ez dugu Carver orain deskubrituko. Baina euskaraz irakurtzeko aukera behintzat badugu.

Just as many proclaim the influence of Laboa in Basque music, so too do many writers when it comes to the influence of Raymond Carver on North-American writing. And while many also try to produce the same effect as caused by his work, very few (or nobody) can ever evoke such feelings of desperation. The simple Carver, the dirty Carver, the romantic Carver, the misty Carver, as fleeting as he is deep. He, more than anybody else, is capable of maintaining the sensation that anything can happen while nothing actually does. We heard the following from the translator of the book, Koro Navarro, in an interview she gave during the presentation of the book "The language and the story itself lean more towards complexity and wealth of expression; but Carver on the other hand, goes headlong against the rules of the story and language." She also notes that "His writing is incredibly crafted and this affords great strength to the ideas and dialogues." It's not as if Carver is new to us, but at least now we have the opportunity to read him in Basque.

## zertaz ari garen maitasunaz ari garenean

erakusketak: urriak 28 - urtarrilak 17



"zartaka"  
leopoldo ferrán  
agustina otero

jardunaldiak:

marguerite yourcenar  
urriak, 7 eta 8

max aub  
urriak 20, 21, 22 eta 23

valérie bélin



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa




zinemak begiratzenu zaitu begiratzenu zaitu  
lookyou rself into the cinema manana looksatyou manana



# ikerketa zentru proiektua lemoizen a research centre project in lemoiz


testua/by: ekhiñe egiguren  
argazkiak/shots: elena castillo eta ekhiñe egiguren





Bizkaiko itsasertzean, Bakio eta Armintza arteko berdegune batetan dago Lemoizko Zentral Nuklearra, 1981ean geldiarazi zenetik abandonatua. Zentralaren berritze/berrerabilpen eta birmoldaketa lanak polemika latzak eragin izan ditu behin baino gehiagotan, halako obra batek dakartzan zailtasun legalen ondorioz -euskal gobernu eta zentralaren interes eta hirigintza murrizketak direla eta bereziki-

The Lemoiz Nuclear Power Station lies in rolling green surroundings on the Biscayan coast between the villages of Bakio and Armintza. It has been abandoned since work on it was forced to stop in 1981. On more than one occasion talk of renovation, reuse and re-adaptation of the station has been the cause of some very serious polemic due to the legal difficulties of work of that nature -especially because of the interests of the Basque Government and the power station and due to the cut-backs in town planning. That said, it cannot be denied that some kind of scenic intervention that will restructure and bring the







Dena dela, lekua berregituratu eta suspertuko duen interbentzio paisajistiko baten beharra garbia da, baita bertako eraikinen interesa berreskura lezakeen funtzio berri batena ere. Lemoizko paisaia osatzen duten hormigoi armatzuko eraikuntza multzoan, bi erreaktoreak eta turbinen nabea dira elementu garrantzitsuenak eta iparraldera, hamahiru metroko altuera duen hormatzarra, Kantauri itsasoa eta Zentrala bereizteko eraikia. Ikerketa Zentro baten proiektuak paisaia preexistente horretan lana eta etxebizitza

place back to life is necessary. Some new use of the buildings that will re-arouse interest in the place has to be considered.

The most important elements amongst the gathering of reinforced cement buildings that make up Lemoiz are the two reactors and the premises that house the turbines are, and to the north, the fourteen-metre tall wall that separates the power station from the Cantabrian Sea. The Research Centre project aims to install a module that unites both a work place and living space





bateratuko dituen modulo berri bat txertatzea du helburu. Alde batetik ikerkuntza eta teknologia berriak aztertuko dituzten laborategiak izango dira eta bestetik hamalau ikerlari taldeak eguneroko bizitzarako beharrezkoak dituen ekipamenduak. Eraikin berria turbinen nabe aurrean kokatua dago, honen fatxadarekiko paralelo diren hormigoizko harresi lodien gainean. Harresi hauek nabearen sabairaino heltzen diren garabi erraldoien zimentazio gisa irudikatua izan ziren hasera batean eta horrexegatik dute orrazi forma oinean. Orrazi horrek bi norantza azpimarratzen ditu; nabearekiko paralelo eta perpendikularra. Ikerketa zentroa jada bertan dauden harresiei egokituz hauen gainean lekutu da, horma horiek berak zimentutzat erabiliz eta baita zentruaren diseinua baldintzatuko duen egitura bezala. Ikerketa Zentruaren egiturak, hormigoizko horma preexistenteak errespetatuz, alde batetik eguneroko bizitzarako guneak

in the pre-existing concrete landscape. On the one hand, there are plans for laboratories where research and investigation on new technologies will be carried out, and on the other, everyday living space for the fourteen members that make up that investigative team.


The new building is situated in front the turbine building and rests on thick cement walls that run parallel to the turbine building's façade. These walls were first conceived as foundations for giant cranes that reach the roof of the turbine building and that's why they take the shape of a comb at the base. This comb shape underlines two directions: parallel to the turbine building and the perpendicular. The Research Centre has been adopted to the walls that were there previously and uses them as foundations. These walls condition the structure of the centre.

The structure of the Research Centre, at all times respectful to the original cement walls, aims to relate the living space with the sea scenery and the high-rise cement whereas the work area faces into the interior of the station.

The outlandishly sized Lemoiz Nuclear Power Station's







**JO**

NORA JO



**DO**

WHAT TO DO





DEEP PURPLE  
Anoetako Belodromoa. Donostia, urriak 26  
Oct 26 Anoeta Cycle Track, Donostia



Komunean erretzen...Smoke on the Water mitikoa konposatu zuen taldeak kontzertua eskaini behar du Donostiako Belodromoan. Nostalgikoentzat kontzertu jurasikoaaaaaahhhhhh.....

Puffin' away in the loo...The band that came up with the mythical Smoke on the Water are to play in Donostia. Dinosaur rock for all you ancient long-hairs.



II. MARATÓN - BIT.ART  
Azaroak 15, Arteleku-Donostia. Kristobaldegi 14. Loiola  
Nov 15. It doesn't matter how you dance... you can win



Adeshoras-ek 2º dantza maratonia antolatu du. 12 ordu dantzan pasa nahi duen edonork hartu dezake. Lehiaketa aske honetan, epaimahaiak, dantzariaren pertsonalitate, grazia, sedukzioa eta komunikatzeko gaitasuna sarituko ditu.

If you want to move your body for 12 ours you can take part in the 2º dance marathon. The jury will give the price to the ones that show a special personality, grace, seduction and communication skills...

● [www.adeshoras.com](http://www.adeshoras.com)



LESGAICINEMAD  
Madrid, urriaren 30etik azaroaren 10era  
Oct 30- Nov 10, Madrid



Zineman generoa beste zerbait dela sinisten dugu guk. Hala ere, lesbiana eta gay zine jaialdiak beharrezkoak izaten dira oraindik.

We thought that the word genre/gender meant something else when referring to cinema. It seems that lesbian and gay film festivals are still very necessary.

● [www.lesgaicinemad.com](http://www.lesgaicinemad.com)



V. TANNED TIN FESTIVAL  
Santander, azaroaren 6, 7 eta 8an  
Nov 6, 7, 8 - Santander



Euskal traineruei egurra emateaz gain jaialdi interesgarriak antolatzen badakitela ere erakusten digute gure bizilagun "kantabroiek". Beste hainbat taldeen artean Chucho, Black Box Recorder, Mastretta eta Miztura

Our "Cantabrian" neighbours have demonstrated that as well as hammering Basque Rowing Clubs out of the water, they're also quite deft at organising some very interesting festivals. Some of the bands on show: Chucho, Black Box Recorder, Mastretta and Miztura.

● [www.tannedtin.com](http://www.tannedtin.com)



MEM - MUSICA EX MACHINA  
Bilbo, azaroaren 27tik abenduaren 27ra  
Nov 27 - Dec 27, Bilbao



Bigarren edizio honetan, MEM-ek bere izaera konplexu, jostakari, esperimental eta anitzari eusten dio. Nazioarteko eta gure artisten arteko hartu emana bultzatzen duen jaialdi honek adibidez, azaroaren 15ean, Bruselasko Galerie Paolo Boselli-n Isabel de Naveran eta Ion Manzidor-en "performance"- ak aurkeztuko ditu.

This second edition of the MEM festival lives up to its name as being complex, enjoyable, experimental and varied. The festival tries to find the balance between international and local acts. Look at what they lined up for Nov 15: performance by Isabel de Navera, the Galerie Paolo Boselli from Brussels and our very own Ion Manzidor.

● [www.musicaexmachina.com](http://www.musicaexmachina.com)



FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA  
Donostia, urriaren 31tik azaroaren 8ra  
Oct 31 - Nov 8, Donostia



Luzemetrai, laburmetrai, Jhon Carpenter-i eskainitako zikloa, Europako heroi eta superheroien filmak, erakusketak eta urtero lez desfasea barra barra...

Full length films, short films, a season of John Carpenter's films, European hero and superhero movies, exhibitions and all the same sheer utter madness as every year.

● [www.donostiakultura.com/terror](http://www.donostiakultura.com/terror)



EXPRESA IRUÑEA  
Urriaren 17tik 25era  
Oct 17 - 25



Expresa-k musikan, zinean, arte eszenikoetan, literaturan arte plastikoetan, argazkigintzan, multimedia, modan... sortzen diren tendentzien erakusle izan nahi du. Hala dio euren promo orriak behintzat.

Expresa basically wants to showcase any new tendencies present in music, cinema, stage arts, literature, the plastic arts, photography, multimedia, fashion... that's what it says on their promo anyway.

● [www.expresapamplona.com](http://www.expresapamplona.com)



SUSTRAIEZ BLAI  
Itsasondo, urriaren 17tik 28ra  
Oct 17 - 28, Itsasondo



Goierriko bihotzean ezarriko den karpa erraldoia mundu zabaleko musiken topagunea izango da. Sustraiez Blai jaialdiaren 3. edizioa berrikuntzekin dator, 10 egunetan zehar hainbat kultur ekitaldi izango dira. Besteak beste Ojos de Brujo eta Gailuren kontzertuak, zine emanaldiak, dantza...


A huge marquee tent in the heart of Goierri plays host to music from all over the world. This whole shebang is named Sustraiez Blai Festival and this years' edition, the 3rd, sees a few innovations introduced. There'll be all kinds of cultural events over ten days and you'll be able to see the likes of Ojos de Brujo and Gailu in concert. That's not to mention the films on show, the dancing...




testua / by: uxeta labrit

Internet erabiltzaileok, tarteka, ezagutzen ez dugun norbaitek bidalitako e-mail iragarkiak jasotzen ditugu. Masiboki bidalia den zabor korreo hori spam izenez da ezaguna mundu osoan.

Spam izenaren jatorria ezagutzeko 1926. urtera jo behar dugu, AEB-tako Hornel elikagai enpresak Spam ( Spiced Ham) urdaiazpikoa latetan saltzen hasi zen urtera hain zuzen. Spam haragia frigorifikoan gordetzea beharrezkoa ez zenez sekulako arrakasta lortu zuen. Bigarren mundu gerran, soldadu estatubatuarrek ez zuten besterik jan eta garaiko klase altu erdi edo baxuko edozein yankiren etxean ez zen falta Spam latarik. Hainbestekoa izan zen arrakasta, egun, latetan saltzen den haragi merke orori deitzen zaiola Spam. Eta analogia erraza eginaz, zabor korreoari izen bera jarri zaio. Spam bidaltzaileak gutxi batzuk dira. Enpresa eta partikular gutxi batzuk dira mundu osoko ordenadoreak zabor iragarkiz betetzen dutenak. Etengabeko mugimenduan dauden Spam bidaltzaileak ia ezinezkoak dira lokalizatzen. Ia edozein ordenagailu eta zerbitzaritik egin daitekeelako spam bidalketa masibo bat. Spam bidaltzaileek milioi bat bidalketa egin dezake 3 euro baino kostu baxuagoan. Ez da existitzen inongo alorretan publizitatea egiteko modu merkeagorik. Erabiltzaile gehienek ez diegu jaramonik egiten baina multinazionalak arduradunek kontuak egin eta gastu itzela direla onartzen dute. Spam bat irekitzen pasatzen den denbora soilik kontuan hartuta, milaka milioi euro gastatzen omen dira urtero mundu osoan. Popatik hartzera joan daitezela denbora eta etekin neurtzaileak! Denbora eta duintasuna ere galtzen dugu multinazionalentzat lanean, eta inork ez du hori zenbatzen eta aztertzen.




## zabor jana, zabor iragarkia junk food junk mail



Those of us who use the internet will, every now and again, get e-mail ads from people we don't know. This junk mail, delivered in absolutely enormous quantities, has become known as spam all over this little green planet of ours.

Those of us who use the internet will, every now and again, get e-mail ads from people we don't know. This junk mail, delivered in absolutely enormous quantities, has become known as spam all over this little green planet of ours. To find out where the name spam comes from, you have to go as far back as the year 1926, right back to the year when American food manufacturers Hornel started selling tinned Spam (Spiced Ham). Spam was a huge success because it was a meat product that didn't need refrigeration. American soldiers ate nothing else during WWII and you would always be able to find a can of Spam in any upper, middle or lower class Yank home. It was so successful that nowadays any cheap meat sold in a tin goes under the name of Spam and a simple analogy was all it took for junk mail to end up being baptised with the same name. Strange as it may seem, not that many people actually send spam. A few companies and individuals are those responsible for stuffing all the computers in the world with junk ads. It's almost impossible to locate these spam senders constantly in motion because almost any computer or server can send off massive amounts of spam. Spam senders can send out about a million e-mails for less than 3 euro. It's absolutely impossible to find a cheaper form of publicity anywhere else. Most of us don't pay too much attention to spam but those in charge at the multinationals have done their sums and reached the conclusion that only the time taken to open this spam costs thousands of millions of Euro every year. Well, all those multinational researchers who calculate the relation between time and profits can go and, excuse the French, fuck right off with themselves! We all lose time and dignity working for the multinationals and nobody looks into the effects it has on us!





Chad Tucker

KYLIE MINOGUE'S  
PET CARE DIRECTOR

Lee®



BEHIND THE SCENES  
SINCE 1889

ladinamo

testua / by: txo!?



LADINAMO  
ASOCIACION CULTURAL



Azken bolada honetan Madriletik pasa bazara akaso konturatuko zinen badela gero eta zabalkunde handiagoa duen aldizkaritxo bat: LDNM. Proiektu txiki ezberdinek osatutako Ladinamo kolektiboaren aldizkaria hain zuzen ere. Oraintxe ireki dute egoitza izango den kafea. LDNM osatzen duten proiektuen artean lehenengo liburua jada kalean eta bidean datozen beste bi dituen argitaletxea, honezkerok 3 muntai ezberdin aurkeztu dituen antzerki taldea, pixkanaka diskoa prestatzen dabilen musika taldea, Madrilen barna egiten diren hainbat sesioetan aurkitu dezakegun Dj kolektiboa, eta dantza taldea aurkitu ditzakegu... oraingoz

Madrilen banatzen da gehien LDNM, baina Bartzelonan ere badabilta (bertan izanak dira proiektua aurkezten baita Gijonen ere) Aragoi, Galiza eta Andaluziatik aleren bat barreiatu dute, eta dirudienez ez nintzateke harrizko Euskal Herrira denbora laburrean iritsiko balitz. Bihilabetekariak sei ale baino ez daramatza eta bere izena gero eta gehiago entzun daiteke espaniar estatuko komunikabideetan. Dohaineko aldizkarien munduren parte izanda ohikoak baino ikuspegi kritikoago dauzkala esan dezakegu, artikulu mamisuetaz hornituta, gizartea, musika, antzerkia, artea, literatura, zinema, komikia, software librea, erreportaje grafikoak eta kultura orokorra jasotzen ditu.

Madrilen ireki berri den Kafean bertan dituzten liburutegi eta software libreez hornitutako ordenadoreak erabili ahal izanen dituzu. Gosaldu, bazkaldu, batidoak hartu eta horretaz gain erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, Dj sesioak eta beste hainbat gauza izanen dira bertan.

Ladinamokoak gero eta jende gehiago hurbil dadin espero dute, modu horretan autonomoak baina bateratuak izango diren proiektu ezberdinak areagotzeko asmoa dute. Erne ibili, Madrid se mueve!.

If you been to Madrid at all lately, you will have noticed a small magazine that is becoming more and more popular: LDNM. The Ladinamo Collective, made up of several smaller projects-groups, are responsible for bringing the mag to life. They've just opened a cafe that'll also be the mag's headquarters. The different groups that make up Ladinamo have been very busy of late: a book publisher that has just published a book and has two more on the way, a theatre group with three productions under its belt, a band working steadily away on a record, a group of DJs that you'll find at many a session in Madrid and a dance troupe...and that's just for the moment.

LDNM is mostly distributed in Madrid, but you'll find it in Barcelona as well (the official presentation it's already done in Barcelona and Gijon.) A few copies have also been distributed in Aragon, Galicia and Andalusia and I certainly wouldn't be surprised if it found its way up to the Basque Country in the near future. This bimonthly magazine is just six issues old but its name is being mentioned more and more in the spanish media. It belongs to the world of free publications, but it's worth pointing out that is more critical than others. Plenty of meaty articles on society, music, theatre, art, literature, cinema, comics, free software, photographic reports and culture in general are the fare offered by the magazine. You might like to head along to the newly-opened café and avail of the library or the free software programmed computers. Have breakfast, lunch, milk shakes while you take in the exhibitions, talks, projections, DJ sessions and the lots more going on there.

The heads at Ladinamo hope that more and more people drop in to see what's going on and so boost the independent but united projects that are coming together. You have been warned! Something's going on down Madrid way!



*Sally O'Sullivan*

ROBBIE WILLIAMS' FAN MAIL COORDINATOR

**Lee** BEHIND THE SCENES SINCE 1889

testua / by: thebalde irudiak / images: uxeta labrit, lorea bidegain

## errepide bazterreko loreak / the flowers at the side of the road





Loreak errepideetan ez dira hazten, bat batean agertzen dira, James Dean-en kotxearen aurrean bihurgune hura agertu zen moduan.

Lantegian, bulegoan, ospitalean edo putetxean hiltzen denari ordea ez zaizkio loreak agertzen. Errepide bazterreko lore agerpen hauek azalpen logikorik ez badute ere, bada guztiak betetzen duten ezaugarri bat: loreak «karretera horretan ni akabatu nintzen» dioten mamuak bizi diren errepideetan soilik agertzen dira...

Flowers don't grow at the sides of roads, they just suddenly appear. Just like that bend when it flung itself at James Dean's car. There are, however, no flowers abloom for those who die in factories, offices, hospitals or brothels.

Though there is no logical explanation for those flowers that turn up at the side of the road, there is one thing true for them all: the flowers only appear on those roads inhabited by ghosts who lament: "I bid farewell to life on this road"



# 7 moto 7.eraiko

## 7 motorbikes for the 7th

testua / by: koldo almandoz

Road movie gehienetan, kotxea izaten da protagonista. Hala ere, bada kotxearen babesari uko egin eta eguraldiaren menpe jartzea nahiago duenik. Kotxearekin alderatuta, motorrak ez du babesik eskaintzen. Baina motoan ibili denak badaki azeledadoreari eragin eta hankatartean sentitzen diren motor kilimek edozein igurtzi baina hobeak direla. Motoak, maitale sutsuen moduan, asko eskatzen dio motor zaleari. Asfaltoaren kontra azala marruskatu eta erre duenak badaki hori ere. Aski. Azken larroetan botatako motero topikoak amaitu dira. Harira. Motoak eta zinea.

